c. EUSKALTELen ekipoetako baten matxura EUSKALTELen errua bada, ekipoa egiaztatzea, konpontzea edo ordeztea ez du BEZEROak ordainduko. Alderantziz, ekipoaren matxura BEZEROaren errua bada, matxurarik ez dagoela ohartzen badira edo matxura BEZEROaren ekiporen batek badu, BEZEROak ordainduko ditu EUSKALTELek baimendutako teknikarien joan-etorrien eta esku-hartzeen gastuak; kasu horietan, une horretan EUSKALTELek ezarrita dituen tarifak aplikatuko dira. Horrek guztiak ez ditu baliogabetzen aurreko ataletan ezarritakoak.

EB. BEZEROAREN EKIPOAK

Ekipoa salerosketa-erregimenean utzi bada edo BEZEROan ekipoa behar bezala homologatuta badago, BEZEROA izango da ekipoaren mantentze-lanen erantzulea.

7. TELEFONO-ZERBITZU FINKOA ALDI BATEZ ETETEAGATIKO ORDAINA

Telefono-zerbitzu finkoa eteten bada, EUSKALTELek konpromisoa hartzen du BEZEROari kalteak ordaintzeko. Ordaindu beharreko zenbatekoak bi aukera hauen arteko handienaren parekoa izan behar du, gutxienez:

a) BEZEROak zerbitzu horretan eten aurreko azken hiru hilabeteetan fakturatu duen zenbatekoaren batezbestekoa zati etenaldiaren iraupena eginda lortzen den zenbatekoa. Zerbitzua kontratatu eta hiru hilabete igaro aurretik gertatzen bada etenaldia, kontsumitutako hilabete osoetako batez besteko fakturaren zenbatekoa edo egindako kontsumo-epearekiko proportzioan kalkulatutako hilabeteko zenbatekoa hartuko da aintzat.

b) Etenaldia gertatzen denean indarrean den hileko abonuaren kuota bost aldiz, etenaldiak irauten duen denboran hainbanatuta.

EUSKALTELek konpromisoa hartzen du BEZEROari kalteak automatikoki ordaintzeko hurrengo fakturan, zerbitzua eten dela eta euro bat baino gehiagoko kalte-ordaina eman behar denean.

Ezinbesteko arrazoiengatik etenez gero, EUSKALTELek abonu-kuotaren zenbatekoa eta trafikoarekin zerikusirik ez dutenena itzuliko dio BEZEROari, etenaren iraunaldiaren arabera proportzionalki hainbanatuta.

Ez da emango baldintza honetan aipatutako kalte-ordaina aldi baterako etena arrazoi hauetako batengatik gertatu bada:

a) BEZEROak edo haren kargu dauden pertsonek Kontratu honetan ezarritako baldintzen ez-betetze larriak egitea, bereziki iruzurrak edo ordaintzea berandutzea.

b) BEZEROak, indarrean dauden arauen arabera ebaluatu gabeko bateragarritasuneko ekipo terminalak konektatzean, sareari kalterik eragiten badio.

8. APLIKATU BEHARREKO TARIFAK

a. Unean-unean indarrean dauden tarifak kobratuko dizkio EUSKALTELek BEZEROari zerbitzuengatik. Kontratu honekin batera, zerbitzu horri dagozkion eta indarrean dauden tarifak agertzen diren orria jasoko du BEZEROak.

b. EUSKALTEL libre da zerbitzuak emateagatiko tarifak edo jarritako baldintzak aldatzeko. Aldaketa horiek behar bezala jakinaraziko zaizkio BEZEROari.

c. Indarrean dauden tarifei kasu bakoitzean legez aplika daitezkeen zergak gehituko zaizkie.

d. Abonu-kuota ordainduta, publikoarentzat erabilgarri dagoen telefono-zerbitzurako sarbidea du BEZEROak.

9. BERME-GORDAILUA

Kontratua egiteko unean zein kontratua indarrean dela, EUSKALTELek berme-gordailu bat eska dezake, eskudirutan edo banku-abal bidezkoa; hala eta guztiz ere, EUSKALTELek zerbitzua emateari uko egin diezaioke BEZEROA ondare aldetik kaudimenduna ez dela iruditzen bazaio.

Berme-gordailuak eska dakizkieke publikoarentzako telefono-zerbitzuaren BEZEROei une bakoitzean indarrean dagoen legerian aurreikusitako kasuetan, eta, bereziki, kasu hauetan:

a. Lehendik zerbitzuaren BEZERO izan diren eta faktura bat edo gehiago ordaindu gabe utzi dituzten pertsona fisiko edo juridikoek eskatutako kokaleku finkoko telefono-zerbitzuko kontratuetan, berankortasunak dirauen artean. Gordailuaren zenbatekoa hura eskatu beharra eragin duten ordaindu gabeko azken hiru ordainagirien zenbatekoa adinakoa izango da. BEZEROak uko egiten badio gordailua egiteari, EUSKALTELek eskaera errefusa dezake.

b. Kokaleku finkotik telefono-zerbitzura abonatzeko kontratuetan, titularrek beste abonu-kontratu batean edo batzuetan zorrak baldin badituzte, une horretan indarrean egon ala ez, eta, behin eta berriro atzeratzen badira dagozkien fakturak ordaintzean. Zenbatekoa kontratuaren titularrari fakturatutako azken hiru ordainagirien batura izango da, edo, kontratuak iraupen laburragoa izan badu, azken ordainagiria bider hiru egitean ateratzen den zenbatekoa. EUSKALTELek frogatzeko moduan eskaera egin eta hurrengo hamabost egunetan gordailua eratzen ez bada, hark kontratatutako zerbitzua eten ahal izango du EUSKALTELek. Bigarren aldiz eskatu eta hamar egun igaro baino lehen gordailua egiten ez bada, BEZEROari baja eman dakioke. Gordailua ez da ordainduko, eta hori eratzea eragin zuten arrazoiak desagertzen direnean baliogabetuko da.

10. FAKTURAZIOA ETA ORDAINTZEKO BALDINTZAK

A. ORDAINTZEKO BALDINTZAK

Azalean agertzen diren ordainketa-baldintzen arabera egingo dio faktura EUSKALTELek BEZEROari, eta zerbitzuak jasotzeagatik BEZEROak ordaindu behar duen zenbatekoa fakturatuko dio, une bakoitzean indarrean dauden tarifen arabera. EUSKALTELen fakturak zehatz-mehatz azalduko ditu azken tarifaren osagai guztiak.

Bankuko helbideratzearen bidez egingo du BEZEROak ordainketa, BEZEROak datuen erregistroan eman duen bankuko kontuaren bidez; eta kontu horretan EUSKALTELi zor dizkion zenbatekoak ordaintzeko besteko saldoa izateko konpromisoa hartzen du BEZEROak. Halaber, esku-dirutan ere ordain daiteke, EUSKALTELen egoitzan. Ordainketa-era hau berariaz aukeratu behar da. BEZEROak zenbat ordaindu behar duen adierazteko, jakinarazpena bidaliko dio EUSKALTELek aipatutako bankuko kontua duen kreditu-erakundeari. Jakinarazpen hori jasotzen denean egin behar da ordainketa.

Ordainketa esku-dirutan eginez gero, BEZEROak zordunketa-agiria etxean jaso eta astebete (7 egun) igaro aurretik egin behar du ordainketa hori.

Zerbitzuaren alta-kuota EUSKALTELen lehen fakturan ordaindu behar du BEZEROak. Halaber, hileroko kuota finkoak amaitutako aldiko ordainduko ditu, baita kontsumoagatiko tarifak ere.

Aldeek berariaz onartzen dute EUSKALTELeko erregistro informatikoak eta horien kopiak BEZEROak eskatutako zerbitzuen eta egiazki kontsumitu dituen zerbitzuen froga nahikoa eta baliagarria direla.

B. EZ ORDAINTZEA

Ordainketa egin beharreko egunean, zerbitzuak erabiltzeagatik EUSKALTELi ordaindu beharreko diru-kopurua ordaintzen ez badu BEZEROak, ordainketak helbideratuta dauden banketxeari egotzi ezineko arrazoiak direla-eta, atzeratzeagatiko interesak berak ordaindu beharko ditu; gainera, konpromisoa ez betetzeagatik sor daitezkeen ondorioak ere bere gain hartuko ditu BEZEROak.

Ordainketa egin behar zen egunetik aurrera aplikatuko da berandutze-tasa. Aipatutako diruaren legezko interesari ehuneko bi puntu gehituko zaizkio. Berandutze-tasa bera aplikatuko da erreklamazio bat dela-eta BEZEROak kopururen bat berreskuratzeko eskubidea duenean ere.

C. EUSKALTELEK ESKATUTA TELEFONO-ZERBITZU FINKOA ETETEA, FAKTURA EZ ORDAINTZEAGATIK

Zenbateko guztiak edo zati bat hilabete baino gehiagoko atzerapenaz ordaindu baditu BEZEROak –zerbitzuaren fakturari dagokion zordunketa-agiria aurkeztu zitzaionetik–, EUSKALTELek zerbitzua aldi baterako eteteko eskubidea du, aurrez BEZEROari jakinarazita.

Ordaintzeko dauden zerbitzuei bakarrik eragingo die etenak. Tarifa gehigarriaren zerbitzuak edo publikoarentzat erabilgarri dagoen telefono-zerbitzua ez diren bestelako zerbitzuak ordaintzen ez badira, zerbitzu horiek bakarrik etengo dira.

Zerbitzuak eteteak ez du BEZEROA dagokion kuota finkoen aldian behingo ordainketetatik salbuesten.

Telefono-zerbitzua ez ordaintzeagatik aldi baterako eteten bada, larrialdietarako irteten diren deietarako mantenduko da, baita sartzen diren deietarako ere, hartzaileak ordaintzeko deiak izan ezik.

Zerbitzua eten ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira:

• EUSKALTEL, SAk ordaintzea eskatuko du eta, ohar baten bidez, etenaldia jakinaraziko dio, gutxienez zerbitzua etengo den eguna baino hamabost egun lehenago.

• Oharrean, ordainketa egiten ez bada, etenaldia zein egunetan egingo den jakinaraziko da.

• Zerbitzua ezingo da bertan behera utzi jaiegunetan. Ordaintzea hiru hilabete baino gehiago atzeratzen bada edo telefono-zerbitzua berandu ordaintzeagatik kontratua bi aldiz eteten bada aldi baterako, EUSKALTELek zerbitzua behin betiko eteteko eta kontratua amaitzeko eskubidea du.

BEZEROak EUSKALTELi zor dizkion kantitateak, berandutze-interesak barne, EUSKALTELek telefono-zerbitzua eten aurretik ordaintzen baditu, EUSKALTELek zerbitzua ematen jarraituko du BEZEROari betebehar gehigarririk sortu gabe.

BEZEROak EUSKALTELi zor dizkion kantitate guztiak, berandutze-interesak barne, EUSKALTELek telefono-zerbitzua eten ondoren ordaintzen baditu, EUSKALTELek zerbitzua berriro ezarriko du BEZEROak zorra ordaindu duela jakin eta hurrengo lanegunean.

Horretarako, indarrean dauden tarifen arabera aplikatu beharreko kuota ordaindu behar du BEZEROak, bai eta ez ordaintzeagatik eta zor zituenak kobratzeagatik sortu diren gastuak ere (berandutze-interesak eta, kasuaren arabera, itzulketa-agentziek, abokatuek, prokuradoreek eta abarrek eragin dituzten gastuak eta kostuak barne).

11. BEZEROAK ESKATUTA ZERBITZUA ALDI BATERAKO ETETEA

BEZEROak eskubidea izango du EUSKALTELi kontratu honetan jasotzen den telefonia-zerbitzu finkoa eteteko eskatzeko. Etete-denboraldia gutxienez hilabetekoa eta gehienez 3 hilabetekoa izango da; epe horrek ezin du inoiz izan urte natural bakoitzeko laurogeita hamar egunekoa baino luzeagoa.

Etenez gero, etenaldiari dagokion zenbatekoaren erdia kenduko da abonu-kuotatik.

Zerbitzua aldi baterako eteteko eskatzeko, BEZEROak eskaera etetea eraginkor egin baino gutxienez hamabost egun lehenago egin behar du.

Horretarako, telefonoz dei egin behar du Bezeroarentzako Arreta Zerbitzura (1717) edo horren ordez jartzen denera. Postaz ere egin dezake honako helbide honetan: "EUSKALTEL SA", ZERBITZUA ALDI BATERAKO ETETEA, 6025 POSTA-KUTXATILA, 48080 P.K., BILBO.

12. TARIFA GEHIGARRIKO ZERBITZUETARAKO DEIAK ETA NAZIOARTEKO DEIAK DESKONEKTATZEA/KONEKTATZEA.

BEZEROak tarifa gehigarriko zerbitzuetarako deiak eta nazioarteko deiak deskonektatzeko/konektatzeko eska dezake.

Deskonexio/Konexio horiek egiteko, telefonoz deitu behar dio BEZEROak EUSKALTELi, Bezeroarentzako Arreta Zerbitzura (1717) edo horren ordez jartzen denera. Postaz ere egin dezake deskonexio-/konexio-eskaria, honako helbide honetan: "EUSKALTEL SA", TARIFA GEHIGARRIA DESKONEKTATZEA/KONEKTATZEA, 6025 POSTA-KUTXATILA, 48080 PK, BILBO. Eskaeran, zer murrizketa egin nahi duen zehaztu behar du BEZEROak.

EUSKALTELek BEZEROaren jakinarazpena jasotako egunetik hamar laneguneko epean deskonektatu/konektatu behar ditu aipatutako zerbitzu horiek.

13. KOMUNIKAZIOEN SEKRETUA

EUSKALTELek konpromisoa hartzen du une bakoitzean eskura dituen eta behar dituen bitarteko teknikoak hartzeko, konstituzioz onartutako komunikazioen sekretutasuna berma dezan, dagokionean, erabaki daitezkeen esku-hartze legalei eragin gabe. EUSKALTELek ez du inolako erantzukizunik izango BEZEROak edo hirugarrenek telefonoko elkarrizketa grabatzearen gainean, ezta horien erabilerari edo publizitateari eta, oro har, EUSKALTELi edo Zerbitzuaren operadoreari egozterik ez dagoen ekintza edo hutsegiteen gainean ere, horiek komunikazioaren konfidentzialtasuna eta sekretutasuna errespetatzen ez badute ere.

14. ERREKLAMAZIOAK

BEZEROak sor daitekeen edozein arazori buruzko erreklamazioak aurkez diezazkioke EUSKALTELi (zerbitzuen funtzionamenduarekin eta kalitatearekin, prezioen aplikazioarekin, fakturazioarekin edo zerbitzua ematearekin lotutakoak edo beste edozein). Erreklamazio horiek gertaera horren berri izan eta hilabeteko epean barruan aurkeztu behar dira.

Erreklamazioak egiteko, telefonoz deitu behar dio BEZEROak EUSKALTELi, Bezeroarentzako Arreta Zerbitzura (1717) edo horren ordez jartzen denera. Posta arruntaren bidez ere egin dezake erreklamazioa, honako helbide honetan: "EUSKALTEL SA", ERREKLAMAZIOAK, 6025 POSTA-KUTXATILA, 48080 P.K., BILBO. Halaber, www.EUSKALTEL.com webgunean agertzen den formularioaren bidez egin dezake.

BEZEROak erreklamazioa egin eta hilabetera erantzun egokirik jaso ez badu, Telekomunikazioetarako eta Informazioaren Gizarterako Estatu Idazkaritzara jo dezake (TIGEI), EUSKALTELek erantzuten dionetik edo erantzuteko epea amaitzen denetik hilabete igaro aurretik.

15. KONTRATUA ETETEKO ARRAZOIAK

Kontratu honen iraupena mugagabea da, eta ondoren agertzen diren egoerengatik deuseztatuko da:

a. EUSKALTEL zerbitzu horiek emateko gaitzen duen titulua iraungi delako. Hori gertatuz gero, BEZEROak ez du kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango.

b. Aldeetako batek kontratu honetan aurreikusten diren betebeharrak betetzen ez baditu, kontratua hauts daiteke.

c. BEZEROak hala eskatuta eta aurrez modu frogagarrian jakinarazita, 2 lanegun lehenago, gutxienez. Horretarako, helbide honetara idatzi behar du, posta arruntez: "EUSKALTEL, SA" , ZERBITZUAN BAJA EMATEA, 24 FD POSTA-KUTXATILA, 48860 ZALLA (BIZKAIA).

d. BEZEROA etxez aldatu bada eta EUSKALTELek etxebizitza berrian zerbitzua emateko sarerik ez badu.

e. Ustekabekoa gertatu delako.

f. BEZEROak kontratua jaso eta 10 eguneko epean behar den bezala sinatuta EUSKALTELi bidali ez badio, EUSKALTELek kontratuari uko egin eta baliogabetzeko eskubidea du.

Kontratua amaitutakoan, BEZEROak eskubidea izango du ordaindutako berme-gordailua jasotzeko, itzul baldin badaiteke, inongo interesik gabe.

Edonola ere, nahiz eta kontratu hau amaitu edo ukatu, BEZEROak ordaindu egin behar ditu EUSKALTELekin hitzartutako ordainketa-betebeharrak; hau da, amaitu edo ukatu den kontratuan agertzen diren zerbitzuak deskonektatu arte, BEZEROak ordaindu egin behar ditu jaso dituen zerbitzuak.

BEZEROak zor dituen zenbatekoen ordaintzea atzeratzeagatik kontratu hau amaitzeaz eta horri buruz kontratuan ezartzen direnak aplikatzeaz gain, EUSKALTELek judizialki erreklamatu ahal izango ditu BEZEROaren jardueraren ondorioz sortutako kalteak, bai eta BEZEROak zordundutako zenbatekoak edo itzuli ez dituen ekipoak edo hondatuta itzulitakoak eta/edo estetika- eta/edo erabilera-kalteak dituztenak ere. Halaber, BEZEROak EUSKALTELen jardueraren ondorioz sortutako kalteak erreklamatzeko aukera izango du, bai eta EUSKALTELek bidegabe kobratu dizkion zenbatekoak ere.

BEZEROak zor dituen zerbitzuak ordaintzen atzeratzeagatik kontratua bertan behera utzi bada, eta gero zerbitzuan alta eman badu, BEZEROak berriz ordaindu behar dio EUSKALTELi une horretan indarrean dagoen alta-kuotaren zenbatekoa eta ordaintzeko duen zorra, zor zuen zenbatekoa kobratzeko behar izan diren kudeaketa estrajudizialen edo judizialen ondorioz sortutako gastu administratiboak eta abokatuaren, prokuradorearen eta abarren gastuak barne. Era berean, EUSKALTELek eskubidea du BEZEROari promozioak, eskaintzak edo deskontuak ez aplikatzeko, ordainketetan atzeratu bada edo uneren batean zegozkion kuotak edo zerbitzu kontratatuak ordaindu ez baditu eta EUSKALTELeko zerbitzuak berriz kontratatzen baditu.

16. DATUEN BABESA

Datu pertsonalak babesteko araudiari jarraiki, EUSKALTELek BEZEROari jakinarazten dio datu pertsonalen fitxategi bat dagoela (automatizatua eta ez-automatizatua), EUSKALTELek berak sortua eta bere ardurapean dagoena. Kontratu-harremana merkaturatzeko eta haren mantentze-lanak eta kudeaketa egiteko erabiltzen da.

Fitxategi hori klausula honetan eta kontratu honen karatulan adierazitako helburuetarako erabiliko da.

BEZEROak baimena ematen du EUSKALTELen produktu eta zerbitzu guztien merkataritza-sustapenerako bere datuak erabiltzeko.

Horrez gain, trebakuntzako edo informazio-ekintzak egiteko eta merkatu- eta iritzi-ikerketetan parte hartzeko bere datuak erabiltzeko baimena ematen du.

EUSKALTELek BEZEROari jakinarazten dio noiznahi ezezta ditzakeela klausula honetan zein kontratuaren karatulan zehaztutako baimenak.

EUSKALTELek BEZEROari jakinarazten dio kontratu honen karatulan azaltzen diren datuak nahitaez bete behar direla –datu horiek gabe, EUSKALTELek ezin du zerbitzua eskaini–, eta borondatez betetzeko azaltzen direnak betetzeko aukera duela.

EUSKALTELek BEZEROaren kaudimena egiazta dezake (BEZEROarena nahiz haren izenean eta interesean dihardunarena), indarrean diren xedapenak errespetatuz jaso diren datu pertsonalen fitxategi automatizatuetara sartuta. Halaber, BEZEROak emandako datuen zehaztasuna ere ziurta dezake EUSKALTELek.

EUSKALTELek BEZEROari jakinarazten dio telekomunikazio-zerbitzuak jasotzeagatik zor dituen zenbatekoak horretarako aurreikusitako epean ordaindu eta indarrean den araudian ezarritako baldintzak bete ezean, diru-betebeharrak ez betetzeari buruzko fitxategietan sar daitezkeela ordaindu gabeko zenbatekoari buruzko datuak.

Halaber, EUSKALTELek BEZEROari jakinarazten dio datu pertsonalak babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999ko Lege Organikoan ezarritakoaren eta horretarako aplika daitezkeen araudien arabera, noiznahi erabil dezakeela datu pertsonaletara sartzeko, horiek zuzentzeko, ezeztatzeko, edo horiei aurka egiteko eskubidea. Horretarako, idatzi bat bidali behar dio, postaz, EUSKALTELi, egindako eskaera adieraziz eta NANaren fotokopia erantsiz, helbide honetara: 24 posta-kutxa, 48860, Zalla (Bizkaia). Bestela, Bezeroarentzako Arreta Zerbitzura deitu (1717, edo horren ordez dagokiona), edo mezu elektroniko bat bidali ().

EUSKALTELek bere gain hartzen du datu pertsonalak sekretupean gordetzeko eta zaintzeko konpromisoa; eta ez aldatzeko, ez galtzeko, ez tratatzeko edo baimenik gabe ez erabiltzeko behar diren neurriak hartuko ditu, datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuen eta ez-automatizatuen segurtasun-neurriei aplikatu beharreko araudiari, indarrean dagoenari, jarraiki.

Jatorrizko linea eta linea konektatua identifikatzeko zerbitzuei buruzko eskubideak.

a) "Deitzen ari den linearen identifikazioa mugatzea". Ez baduzu zure zenbakia agertzea nahi deitzen diezun BEZEROen terminaletan, nahikoa da "067" markatzea (ez du kosturik) deitu nahi duzun telefono-zenbakiaren aurretik. Gainera, zure telefono-zenbakia behin-betiko ezkutatu nahi baduzu, kosturik gabe egin dezakezu sei hilean behin zerbitzu hori eskatuta Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuan (1717 edo horren ordez jartzen dena).

Bestalde, EUSKALTELek jakinarazten dizu deitzen ari den linearen identifikazioaren jatorria kentzen duela 112 zenbakiaren bitartez larrialdi-zerbitzuetara deitzen eta larrialdietarako zenbakien bitartez edo segurtasun publikoarekin edo defentsa nazionalarekin lotutako baimendutako bestelako zenbakien bitartez egindako deietan.

b) "Deitzen ari den linea helmugan identifikatzea". Deiaren jatorriko telefono-zenbakia terminalean ikustea nahi ez baduzu, kosturik gabe eska dezakezu zerbitzu hori sei hilean behin Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuan (1717) edo horren ordez jartzen denean.

c) "Identifikaziorik gabeko deiak iragaztea". BEZEROak identifikaziorik gabeko deiak iragazi nahi baditu helmugan, Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuko 1717 zenbakian (edo horren ordez jartzen dena) eska dezake zerbitzu hori.

d) "Konektatutako linearen identifikazioa". EUSKALTELen ISDN zerbitzua duten BEZEROek konektatutako linea identifikatzeko erraztasuna dute lehenespenez. Edozein operadoretako ISDN linea batetik datorren deia jasotzen duen BEZEROak nahi ez badu dei-egileak konektatutako linea bistaratzea, Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuko 1717 telefonoan (edo horren ordez jartzen dena) eska dezake.

e) "Deiak automatikoki desbideratzea". BEZEROak ez badu nahi inork deiak automatikoki bere terminalera desbideratzea, *02# markatu behar du zerbitzua aktibatzeko, eta #02# desaktibatzeko (ez du kosturik BEZEROarentzat).

BEZEROak kontratuaren azalean jarritakoaren arabera baimena emandakoan, telefono-kontsulten zerbitzuetan eta gidetan (paperezkoetan eta elektronikoetan) BEZEROaren datuak sar daitezen, EUSKALTELek Telekomunikazioen Merkatuaren Batzordeari emango dizkio BEZEROaren datuak, unean-unean indarrean dagoen legediak ezartzen duenaren arabera.

Bestalde, BEZEROak eska diezaioke EUSKALTELi bere datuak telefono-gidetatik edo telefono-kontsulten zerbitzuetatik kentzeko; halaber, eska diezaioke bere datu pertsonalak hirugarrenen zuzeneko salmentarako erabili ezin direla adierazteko edota datu pertsonalen akatsak zuzentzeko. Hori dela eta, BEZEROak lehen aipatutakoa ukatzeko, sartzeko, zuzentzeko eta bertan behera uzteko eskubideak gauza ditzake.

BEZEROak eskatzen badu bere datuak ez sartzeko kontsulta telefonikoko zerbitzuetan eta gidetan (paperezkoetan eta elektronikoetan), kontuan izan behar du "Deitzen ari den linea helmugan identifikatzea" zerbitzuaren bidez, deia jaso duenak bere telefono-zenbakia identifika dezakeela. Halaber, kontuan izan behar du deia jaso duenak bere telefono-zenbakia identifika dezakeela "Konektatutako linea identifikatzea" zerbitzuaren bidez.

Beraz, bere zenbakia inork identifikatzea nahi ez badu, jatorrizko linea eta linea konektatua identifikatzeko zerbitzuei buruzko atalari jarraiki erabili behar ditu bere eskubideak.

17. JABETZA INTELEKTUALA ETA INDUSTRIALA

Kontratu hau izenpetzeak ez dio ematen BEZEROari, inondik ere, Zerbitzuei edo horien edukiei lotutako jabetza intelektualeko edo industrialeko eskubideak bereganatzeko ahalmenik. Araudi espezifikoak eta kontratu honek dioena dituzte gidari aipatu eskubideek. BEZEROA da berak edo bere agindupekoek egindako arau-hausteen erantzule bakarra (EUSKALTELen, beste BEZERO baten edo hirugarren baten eskubideei eragiten dietenak, honako hauek barne: copyrighta, markak, patenteak, informazio konfidentziala eta jabetza intelektualaren edo industria-jabetzaren beste edozein eskubide).

18. APLIKATU BEHARREKO ERREGIMEN JURIDIKOA

BEZEROak kontratu honetako telekomunikazio-zerbitzuak emateko kontratua egiten du EUSKALTELekin, une bakoitzean indarrean dagoen Espainiako araudiari lotuta.

19. KONTRATUA ALDATZEA

Kontratu hau sinatu ondoren kontratuan aldaketarik egiten bada, BEZEROari jakinarazi behar zaio, indarrean sartu baino hilabete lehenago gutxienez. Epe horretan, BEZEROA aldaketekin ados ez badago, EUSKALTELi jakinaraz diezaioke kontratua bertan behera uzteko asmoa. Hilabeteko epe hori amaituta EUSKALTELek jakinarazpenik jaso ez badu, BEZEROak aldaketak onartu dituela ondorioztatuko da.

20. ZERBITZUAN IRAUTEKO KONPROMISOAK

Hala badagokio, BEZEROak kontratu honen eranskinak sina ditzake zerbitzua denbora-tarte jakin batean kontratatua izateko, eta, hala, abantailak, deskontuak eta ekipamendua eskuratzeko sustapen-prezioan. Hala bada, eranskin horietan aurreikusitako eskubide eta betebehar bereziak ere ezar daitezke.

1. OBJETO DEL CONTRATO

Por el presente contrato, el CLIENTE contrata al servicio de telefonía fija disponible al público prestado por EUSKALTEL en la modalidad escogida en la carátula del presente contrato. El cliente acepta la prestación de dicho servicio por EUSKALTEL.

Además de dichos servicios el CLIENTE podrá contratar servicios o funcionalidades adicionales que podrán ser objeto de tarifas independientes, rigiéndose en lo demás por lo previsto en este contrato.

En el caso de que el CLIENTE solicite la modificación de los servicios contratados por vía electrónica o telefónica, los nuevos servicios se regirán por las presentes Condiciones Generales, por lo que no será necesaria la firma de un nuevo contrato. El pago de la primera factura correspondiente a los nuevos servicios contratados implicará la aceptación de las presentes Condiciones Generales.

2. CALIDAD

Los niveles mínimos de calidad del servicio comprometidos por EUSKALTEL y vigentes en el año en curso son comunicados a los Organismos competentes y publicados en la página web de EUSKALTEL: www.EUSKALTEL.com

Asimismo, el CLIENTE podrá solicitar el envío gratuito a su domicilio por correo ordinario del documento con los niveles mínimos de calidad del servicio.

2.1 INDEMNIZACIÓN DERIVADA DE LA ORDEN ITC/912/2006:

En relación al parámetro de tiempo de interrupción del servicio, EUSKALTEL se compromete a que el periodo de interrupción del servicio telefónico disponible al público no supere las de 47 horas por periodo de facturación, tiempo a partir del cual indemnizará a sus CLIENTES por un valor directamente proporcional al tiempo de pérdida total del servicio.

El cómputo del periodo de interrupción del servicio será el resultado de la suma de los tiempos trascurridos desde que se ha producido la rotura o inutilización por degradación del servicio hasta el momento del reestablecimiento de su normal funcionamiento.

A estos efectos, el instante de inicio del cómputo del periodo de interrupción del servicio será el primero de los dos sucesos siguientes:

a) El de notificación por el CLIENTE del aviso de avería al nº 1718

b) El del registro del operador de la incidencia causante de la interrupción total o parcial del servicio.

En el supuesto en EUSKALTEL supere el parámetro de tiempo de interrupción del servicio establecido en la presente cláusula, EUSKALTEL se compromete a realizar un descuento en factura, previa solicitud por parte del CLIENTE, igual a:

EUSKALTEL se compromete a indemnizar al CLIENTE con una cantidad que será, al menos, igual a la mayor de las dos siguientes:

a) El promedio del importe facturado por todos los servicios interrumpidos durante los tres meses anteriores a la interrupción, prorrateado por el tiempo que haya durado la interrupción. En caso de una antigüedad inferior a tres meses, se considerará el importe de la factura media en las mensualidades completas efectuadas o la que se hubiese obtenido en una mensualidad estimada de forma proporcional al período de consumo efectivo realizado.

b) Cinco veces la cuota mensual de abono vigente en el momento de la interrupción, prorrateado por el tiempo de duración de esta.

2.2 COMPROMISO POR AVERÍA

En el supuesto en que una avería tenga una duración inferior a 47 horas y superior a 10 horas, EUSKALTEL se compromete a abonar, previa solicitud por parte del CLIENTE, la indemnización proporcional señalada en los puntos A) y B) anteriores.

3. CONTRATACIÓN DEL SERVICIO Y SUCESIÓN DEL CONTRATO

El abono al servicio es personal y el CLIENTE no podrá traspasar sus derechos y responsabilidades a terceros, salvo en los casos previstos en los párrafos siguientes.

El CLIENTE utilizará el Servicio en calidad de usuario final, exclusivamente para el fin para el que ha sido contratado, siendo responsable de extender el cumplimiento de lo establecido en el presente contrato a las personas a su cargo así como a cualquier otra que por cualquier motivo pueda tener acceso al Servicio.

En caso de fallecimiento del CLIENTE, tendrán derecho a sucederle en el contrato el heredero o legatario, que haya de sucederle en la propiedad o el uso de la vivienda o local en que estén instalados los servicios, y si fueran varios, el que designen los interesados.

En caso de extinción de la persona jurídica titular del contrato, por fusión o absorción u otras causas análogas, tendrá derecho a subrogarse en el contrato la persona o entidad que, con tal motivo, le suceda en el derecho de propiedad o uso del local donde estén instalados los servicios.

La sucesión en el contrato deberá comunicarse a EUSKALTEL en el plazo de seis meses, a partir de la fecha del hecho causante, formalizándose un nuevo contrato.

El Servicio objeto de este Contrato es personal, por lo que no podrá ser objeto de reventa, cesión o explotación comercial a terceros por parte del CLIENTE sin consentimiento expreso de EUSKALTEL.

El CLIENTE estará obligado a comunicar a EUSKALTEL cualquier cambio que se produzca en sus datos identificativos y en los de domiciliación bancaria, antes de que sean efectivos.

4. INSTALACIÓN DEL SERVICIO

a. EUSKALTEL establecerá la conexión al servicio en el plazo de tres meses desde la firma del contrato. EUSKALTEL acordará con el CLIENTE la fecha de instalación de los servicios.

b. La instalación del servicio y equipo en el domicilio del CLIENTE se realizará razonablemente según las indicaciones del CLIENTE, aunque por razones técnicas EUSKALTEL se reserva el derecho a determinar en función de las mismas la ubicación de los puntos de conexión y el trazado de los cables.

c. EUSKALTEL procurará causar las mínimas molestias posibles durante la instalación del servicio y equipo y se compromete a reparar cualquier daño que pudiera ocasionar.

d. El CLIENTE facilitará, en horas hábiles, el acceso a su domicilio del personal de EUSKALTEL o de sus empresas colaboradoras, debidamente autorizado e identificado por aquélla, con el objeto de verificar el cumplimiento por parte del CLIENTE de todas las obligaciones estipuladas en estas condiciones generales, así como para efectuar altas, bajas, modificaciones, inspecciones de la instalación, localización o reparación de averías, comunicándole las anomalías que observe en el plazo más breve posible.

Asimismo facilitará el acceso a fin de retirar, si fuera necesario, el material a la fecha de terminación del contrato y en cuantos casos proceda, legal o contractualmente.

e. EUSKALTEL podrá introducir, notificándolo previamente al CLIENTE, cambios en los sistemas, instalaciones y numeración de CLIENTES y los que exija la organización y necesidades del servicio o la conveniencia y condicionamientos técnicos y/o legales y de progreso.

5. EQUIPOS

A. DOCUMENTO DE CONFORMIDAD A LA INSTALACIÓN

El CLIENTE tendrá derecho a recibir la prestación del Servicio tras la firma del presente Contrato y, una vez realizada la instalación, del correspondiente Documento de Conformidad a la Instalación; dicho documento será considerado parte integrante de este contrato.

B. EQUIPOS

a. Entregados por EUSKALTEL

EUSKALTEL entregará al CLIENTE en perfectas condiciones de uso los materiales, equipos y accesorios (que en adelante se denominarán conjuntamente los "Equipos") necesarios para la prestación del Servicio. El Documento de Conformidad a la Instalación incluirá una relación de los Equipos entregados.

Los equipos facilitados por EUSKALTEL lo serán en régimen de alquiler, compra o cualquier otro título. No obstante el régimen de utilización será el de alquiler si las partes no acuerdan expresamente otro; en este caso, el CLIENTE no adquirirá la propiedad de los equipos entregados, ni podrá cederlos o entregarlos a terceros, debiendo mantenerlos en su poder durante la vigencia del presente contrato y utilizarlos exclusivamente en el lugar y para el fin contratado. EUSKALTEL podrá solicitar en cualquier momento de vigencia del contrato la constitución de un depósito de garantía no remunerado, en efectivo o aval bancario, cuyo importe será como máximo el valor de los equipos facilitados; en caso de que una vez requerido por EUSKALTEL, el CLIENTE no constituyera la garantía antes citada en el plazo de quince días naturales, EUSKALTEL podrá retirar los equipos facilitados o, en su caso, no facilitar los mismos.

Sin perjuicio de lo anterior, una vez requerido por EUSKALTEL el citado depósito de garantía, el CLIENTE podrá modificar el régimen de utilización de los equipos con el fin de no tener que llevar a cabo la constitución del depósito de garantía. El CLIENTE es responsable de los daños producidos por el uso o manipulación inadecuado o no autorizado de los equipos entregados, siendo a su cargo cualquier reclamación que pudiera producirse.

El CLIENTE deberá custodiar y utilizar adecuadamente los equipos, materiales o sistemas que le sean entregados por EUSKALTEL y que sean propiedad del mismo, por lo que en caso de extravío, robo, hurto, desaparición, destrucción o deterioro no derivado del uso ordinario, de todo o parte de los equipos propiedad de EUSKALTEL, el CLIENTE deberá informar del suceso a EUSKALTEL en el plazo máximo de tres días naturales. El CLIENTE deberá indemnizar a EUSKALTEL por un importe igual a la totalidad de los gastos derivados de la reparación de los equipos deteriorados o averiados o, por la totalidad de su valor inicial a la suscripción del presente Contrato, en caso de extravío, robo, hurto, desaparición, o destrucción, o de averías o deterioros que exija una reparación cuyo coste supere el del equipo averiado o deteriorado; la mencionada indemnización se hará efectiva mediante cargo a favor de EUSKALTEL en la cuenta bancaria facilitada por el CLIENTE, pudiendo incluirse bien en la factura relativa a los servicios contratados o bien en factura independiente.

En aras a proporcionar la continua actualización de los equipos, materiales o sistemas que sean de su propiedad y que hubieran sido entregados al CLIENTE en régimen de alquiler, en caso de desfase tecnológico de los mismos, EUSKALTEL podrá sustituirlos, sin cargo para el CLIENTE, por otros de tecnología y prestaciones más avanzadas, siendo de aplicación al nuevo equipo o sistema, desde que finalice su instalación, las tarifas vigentes en dicho momento.

Los productos que se incluyan en el formulario de contratación del presente contrato como parte integrante de un paquete contratado, se sujetarán a las condiciones que el fabricante de dichos productos estipule para los mismos.

Sin perjuicio de lo indicado anteriormente, EUSKALTEL garantiza el perfecto estado del producto en el momento de su entrega al CLIENTE y se compromete, durante la duración de la garantía, a cambiar el producto en el caso de que se observen vicios o defectos originarios.

El CLIENTE asume bajo su exclusiva responsabilidad las consecuencias, daños o acciones que pudieran derivarse de la configuración, manipulación o del incorrecto uso de dichos productos. EUSKALTEL no será responsable de las infracciones del CLIENTE que afecten a los derechos del fabricante del producto, incluyendo los derechos del copyright, marcas, patentes, licencias, información confidencial y cualquier otro derecho de propiedad intelectual o industrial.

Una vez resuelto el presente contrato, el CLIENTE deberá, en el plazo de quince días naturales desde la fecha efectiva de la resolución, devolver a EUSKALTEL los equipos de su propiedad que le hubieran sido entregados en perfecto estado estético y de funcionamiento.

A tal fin, el CLIENTE procederá a llamar al número de atención al CLIENTE que EUSKALTEL tenga asignado en cada momento a fin de acordar la fecha y hora en que personal autorizado por EUSKALTEL, debidamente identificado, acudirá a recoger los equipos en el domicilio del CLIENTE; los gastos de devolución de los Equipos (gastos de desplazamiento, trabajos de desinstalación de equipos, etc.) serán de cuenta del CLIENTE.

